

Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

Temática

Identidad, tradiciones, ecología

Identidad. Chihiro se ve inmersa en un mundo mágico y desconocido, y tiene que enfrentarse sola a los retos que le plantea la vida. En la transición de niña a adulta, se hace cada vez más fuerte.

Tradiciones. Es importante no olvidar de dónde venimos, si queremos saber a dónde queremos llegar. La película nos muestra el choque entre la tradición y la modernidad o el progreso, separados en dos mundos: el mundo mágico de los espíritus de la tradición japonesa y el mundo real.

Ecología. El desarrollo desorbitado de hoy en día no tiene ningún respeto hacia el entorno o la naturaleza. Mediante metáforas, la película nos muestra la importancia de cuidar el medio ambiente.

Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

...hacia adentro. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

...hacia fuera. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

...no solo con la cabeza, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

...y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

Algunas preguntas...

...antes de la película

·Sobre la identidad: ¿Cuándo pasa una persona de la infancia a la adolescencia, y de ahí a la edad adulta? ¿Resultan difíciles las transiciones?

·Sobre las tradiciones: ¿Es importante mantener las costumbres? ¿Por qué? ¿Cómo se puede mantener el equilibrio entre las tradiciones y el desarrollo? ¿Qué es para ti la espiritualidad?

·Sobre la ecología: ¿Qué significa cuidar del medio ambiente? ¿Cuál es la relación entre el ser humano y la naturaleza en las distintas culturas que conocemos?

...después de la película

·¿En qué cambia Chihiro durante la película? ¿Qué vivencias influyen en su desarrollo? ¿Cómo consigue superar los obstáculos?

·¿Qué características tiene la relación entre Chihiro/Sen y Haku? ¿En qué se ayudan mutuamente? ¿Qué busca el personaje Sin Cara? ¿Y Yubaba?

·¿Qué has aprendido sobre cuidar el medio ambiente? ¿Qué personajes son los que más aprendizajes transmiten sobre este tema?

El viaje de Chihiro

Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Sen to Chihiro no kamikakushi.

AÑO: 2001.

DURACIÓN: 124 min.

PAÍS: Japón.

DIRECCIÓN: Hayao Miyazaki.

REPARTO: Animación.

PRODUCCIÓN: Studio Ghibli / Tokuma Shoten / Dentsu.

Sipnopsis

Chihiro es una niña de 10 años que se muda de casa junto a su familia. Durante el viaje sus padres, Yugo y Aiko, deciden tomar un atajo y por accidente acaban encontrando un túnel que les conduce a una ciudad fantasmal en la cual les está esperando un magnífico banquete. Yugo y Aiko se lanzan sobre la comida y empiezan a engullir todo lo que encuentran. Entonces: por sorpresa, los padres de Chihiro se convierten en cerdos. Sin querer Chihiro y su familia han entrado a un mundo habitado por dioses y seres mágicos, entre los cuales está la malvada Yubaba, una bruja dueña de unos baños termales. Chihiro tiene que aprender a vivir en un mundo adulto en el que nadie va a tener miramientos con ella por tener la edad que tiene. Es un mundo en el que cuesta conseguir las cosas, y en el que se tiene que luchar por lo que crees y por lo que amas. Su fe en la bondad de los demás la llevará a salvar a personajes como Sin Cara y a vencer a enemigos como Yubaba. Su amistad con el joven Haku es lo que la empuja a seguir, a evolucionar y a atreverse a romper sus propias limitaciones.

Chihiroren bidaia



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Nortasuna, tradizioak, ekologia

Nortasuna. Chihiro, bakarrik murgiltzen da ezagutzen ez duen mundu magiko batean eta bakarrik egin behar die aurre bidean aurkitzen dituen erronkei. Gero eta indartsuago bihurtzen da haur izatetik heldu bihurtzeko trantsizio horretan.

Tradizioak. Garrantzitsua da ez ahaztea nondik gatozen, nora joan nahi dugun jakiteko. Pelikulan, tradizioak eta modernitateak edo garapenak talka egiten dute bi mundutan banatuta: japoniar tradizioko izpirituen mundu magikoa eta mundu erreala.

Ekologia. Gaur egun bizi dugun garapen bortitzak ez du ingurumenarekin eta naturarekin inongo errespeturik. Metaforen bidez ingurumena zaintzearen garrantzia erakutsiko digu pelikulak.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Hainbat galdera...

...pelikula ikusi aurretik

·Nortasunari buruz: Noiz igarotzen da pertsona bat haurtzarotik nerabezarora eta hemendik heldutasunera? Zailak al dira aldaketa hauek?
·Tradizioei buruz: Garrantzitsua al da ohiturak mantentzea? Zergatik? Nola mantendu ohituren eta garapenaren arteko oreka? Zer da zuretzat izpiritualitatea?

·Ekologiari buruz: zer esan nahi du ingurumena zaintzeak? Zein da gizakion harremana naturarekin gaur egun ezagutzen dituzun kultura ezberdinetan?

...pelikula ikusi ondoren

·Zertan aldatzen da Chihiro pelikulan zehar? Ze bizipenek dute eragin gehien bere garapenean? Nola lortzen du zailtasunak gainditzea?

·Ze ezaugarri dauzka Chihiro/Sen eta Hakuren arteko harremanak? Zertan laguntzen diote elkarri? Aurpegirik Gabeko pertsonaiak zer bilatzen du? Eta Yubabak?

·Zer ikaskuntza jaso dituzu ingurumenaren zaintzaren inguruan? Ze pertsonaiek erakusten dituzte gehien ikaskuntza hauek?

Chihiroren bidaiak

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Sen to Chihiro no kamikakushi.
URTEA: 2001.
IRAUPENA: 124 min.
HERRIALDEA: Japonia.

ZUZENDARIA: Hayao Miyazaki.
AKTORE-ZERRENDA: Animazioa.
EKOIZPEN-ETXEA: Studio Ghibli / Tokuma Shoten / Dentsu.

Sinopsia

Chihiro 10 urteko neskatu bat da, eta etxetik aldatzera doa familiarekin batera; bidaiari, Yugo eta Aiko gurasoak bidezidor batean sartu eta galdu egiten dira. Tunel bat igarotzean, hiri misteriotsu batera iristen dira, eta hain zain dute otordu oparo bat. Yugok eta Aikok ezin diote eutsi gogoari eta aurrean topatzen duten guztia irensten hasten dira. Orduan, bat batean, txerri bihurtzen dira Chihiroren gurasoak. Nahi gabe, Chihiro eta bere gurasoak jainkoak eta izaki magikoak bizi diren lurralde batean sartu dira; tartean Yubaba maltzurra, bainu termal batzuen jabe den sorgina. Chihirok helduen mundu batean bizitzen ikasi beharko du, inork ez baitu ezertarako kontuan izango haren adina. Gauzak lortzea nekeza da han, eta sinesten eta maite duzun horregatik borrokatu behar du. Besteen ontasunarengan duen fedeari esker, Aurpegirik Gabeko pertsonaiaren gisakoak salbatu eta Yubaba eta antzeko etsaiei gailentzeko modua topatuko du. Haku gaztearekin duen laguntasunak bultzatzen du aurrera jarraitzera, eboluzionatzera eta bere muga propioak haustera.

El viaje de Chihiro



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO